

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

2022ko MARTXOAREN 28ko

BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Desperies, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku (19:40tik goiti), Corinne Othatceguy, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus (20:30 arte), Isabelle Ayerbe, Maud Gastigard, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Jean-Paul Eyherachar, Jean-Jacques Lassus (20:30etik goiti), Jean-François Lacosta, Roger Barbier, Carmen Gonzalez, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ahalordeak: Jean-Paul Eyherachar-ek Christian Devèze-ri, Jean-Jacques Lassus-ek Nicole Amestoy-ri (20:30etik goiti), Jean-François Lacosta-k Peio Etcheleku-ri, Roger Barbier-ek Bernadette Remeau-ri, Carmen Gonzalez-ek Christiane Hargain-Desperies-ri, Lilian Hirigoyen-ek Nathalie Aïçaguerre-ri.

Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Isabelle Ayerbe hautatu dute saioko idazkari izateko.

Saioa hasteko, Auzapezak Ukrainako gerra izan du aipagai, eta bertan gertatzen diren sarraski eta biztanleriaren lekuz aldatze eta sakabanaketak. Gure demokrazien hauskortasunaz gogoetatzeko parada ematen digu horrek, eta bakean den herrialde batean bizitzeko dugun zorteaz ere. Minutu bateko isilaldia egiteko gomita luzatu du, Ukrainarrak eta beren herrialde suntsitua gogoan izateko.

18– 2022ko aurrekontu norabideak.

Aizpuru andereak bost ataletan banatuak diren herriko aurrekontu norabideak aurkeztu ditu:

- Ekonomia aurreikuspenak eta Frantziako 2022ko Finantza Legea,
- Herriaren finantza egoera 2021eko ariketa hestean,
- 2022ko aurrekontuaren norabideak,
- Hilobien aurrekontu erantsia,
- Bestelako eranskinak.

Aizpuru andereak ohartarazi du aurrekontuen prestatzeko prozedura oraindik bidean dela. Honako txostenean aurkeztzen diren zenbatekoak gastu eta sarrera aurreikuspenak dira, izan funtzionamendu atalean nola inbertsioetakoan. Aurreikuspenok aurrekontua bozkatu arte doituko dira, onetsiko diren hipotesien arabera.

2022ko aurrekontuen norabide orokorrek honako joera politikoak dituzte kontuan hartzen:

- Inflazio iragarpena aplikatzea zerga tasari. Honela, zerga tasa %2,10-ez emendatzea proposatzen da,

- Antolaketa berria dela-eta, giza baliabideen azkartzea, gaitasun berriak sartuz (animazioa, komunikazioa eta abar),
- Halere, funtzionamendu gastuak mugatzea, aurrezki garbi positibo baten bermatzen segitzeko,
- Funtzionamenduko soberakinaren zati handi bat inbertsioen bultzatzeko autofinantzaziora esleitzea,
- 2021ean argiki adierazi lur funtsen politikarekin segituz, aurreikusiak diren eskuratze eta uzte ekintzak burutzea ToLFEP-aren menturazko eskuhartzearekin.

Bistan da, norabide hauek nazioarteko krisialdien bilakaeraren menpe izanen dira.

Funtzionamendu sartzeen eta hauen bilakaeraren estimazioari esker, 2022ko aurrekontuen orekatzeko jokagaiak hauteman ditzakegu.

Aurrekontu norabideen gaur egungo egoeran, funtzionamendu atalari dagokionez, 2022ko sartze errealak 6 600 000 €tan aurreikusten dira, eta gastu errealak 6 300 000 €tan.

Inbertsioen atalari dagokionez, 2022rako aurreikusten diren sartze errealak 5 600 000 €koak lirateke, eta gastu errealak 5 900 000 €koak.

Bacardatz jaunak ohartarazi du, Aizpuru anderearen azalpenen arabera, zerga tasaren emendatzeak 38 000 €ko gain-balioa eraginen duela. Ohartu da, urtero emaitzen esleipena egiten denean funtzionamendu atalak irabaziak dituela. Ondorioz, galdetu du zer interes duen herriak zerga tasaren emendatzeko, 38 000 €ko irabazi baten ukateko.

Peio Etcheleku jauna gelan sartu da.

Auzapezak ihardetsi dio, egia dela lur funts eraiki eta eraiki gabeen gainean %2,10eko zerga emendatzea egiteak ez duela eragin nabarmenik herriaren aurrekontuan. Azaldu du, 1999az geroztik, herriak bere zergen tasa sistematikoki egokitzen duela inflazioaren arabera.

Funtzionamendu soberakinei dagokienez, Auzapezak adierazi du herri askok soberakinak izan dituztela 2021ean, gaur egungo krisiak eragiten dituen hornikuntza zailtasunengatik inbertsio programak gibelatu behar izan baitituzte. Horregatik, neurri batean, Kanboren kasuan hain inbertsio gutxi egin da. Aizpuru andereak argi azaldu du funtzionamendu gastu eta sartzeak neurri bereko beste herrienak baino apalagoak zirela, eta herriak aplikatu dituen tasak ere txikiagoak dira.

Auzapezak zenbaki zenbait eman du honako lan eta proiektuen inguruan: Gurutze Gorriaren eraikineko lanak, lokal horren ondoko aparkalekuarenak, Bru etxea ToLFEP-ari erostearekin bi apartamentu larrialdi etxebizitza bilakatzeko, tenis zelai estalien programa, Ad'AP, Aranaga etxearen kanpoko hormen margotzea, bideo-babesa, zuntz optikoaren sarea eta suteen kontrako ekipamenduak. 2022ko aurrekontuko inbertsioen zenbatekoak 4 600 000 €koak dira, bertan sartzen direlarik gibelatu diren lanak, eta 1 800 000 €ko mailegu bati esker orekatuko dena, kontuan izanik herriak zorpetze tasa baxua duela.

Herri Biltzarrak aurrekontu norabideei buruzko eztabaida izan dela baieztatu du.

19 – Urbeltz bideko lur sail baten eskuratzea.

Magis jaunak biltzarkideei oroitarazi die Inchauspe Kontsorteak ados direla Urbeltz bide hegiko AO n°0002 zenbakidun lur saila uzteko (Hazparnerako desbideratzea, Puyodebat biribilgunearen eta Termetakoaren artean) 3 000 €ren truke. 12 589 m²ko lur sail horrekin, herriak lur funts erreserba baten jarraikortasuna bermatuko luke bide horren bazterrean eta oihan eremua babestuz.

Herri Biltzarrari eskatu zaio eskuratze horren onartzea, eta Auzapezari baimena ematea ekintza horren burutzeko izapide oro egin dezan.

Aïçaguerre andereak adierazi du sail horretarako sarbiderik ez dagoela, eta ondorioz ez duela ikusten zer interes lukeen herriak horren eskuratzeko, kokapena eta egoera (lapar anitz) ikusita.

Magis jaunak ihardetsi dio lur sailaren beheko aldean badela pasatzeko eskubide bat, eta laparrez aparte arbolak ere badirela.

Auzapezak gehitu du lur hori interesgarria dela bere prezio eta kokapenarengatik. Oroitarazi du gaur egungo Larregaina etxemultzoa ber egoeran zela.

Bacardatz jaunak galdetu du norenak diren inguruko lur sailak.

Magis jaunak pribatuak direla.

Bacardatz jaunak galdetu du ea lur sail horietako batek Marieniako ordokiarekin lotura egin dezakeen.

Magis jaunak ezetz.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea saltzaileek duten herria deitu.

Auzapezak ihardetsi dio herriak horren berri izan duela Eyherachar jaunaren bidez.

Auzapezak bozkara eman du.

Gehiengoz onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

Peio Etcheleku jaunak ez du bozkan parte hartu.

20 – SDEPA: eremu publikoa denbora batez okupatzeko hitzarmena.

Auzapez jaunak oroitarazi du herriak klima aldaketaren kontrako eta garapen iraunkorraren aldeko politika orokor batean sartu nahi duela. Horretarako, Gurutze Gorriaren teilatua SDEPAren eskura ezarri nahi du, panel fotovoltaikoak ezar ditzan sare publikora lotuak izan daitezzen. Proposatu du herriak SDEPA-ri baimena ematea, aipatu teiltuaren zati bat modu pribatu eta prekarioan okupatzeko. Eremu publikoaren okupatzeko hitzarmena egingen da, modu prekario eta deuseztagarrian, hogeitazazko urterako, eta alokairua ekintzaren etekin garbiaren %40ekoa izanik (salmenta – maileguaren urteko saria – ustiatze gastuak).

Herri Biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena ematea SDEPA-rekin hitzarmena izenpetzeko, non alde bakoitzaren eskubide eta betebeharrak zehaztuko diren, Gurutze Gorriaren teiltuaren zati bat modu pribatu eta behin-behinekoan okupatzeko.

Bacardatz jaunak galdetu du zenbatekoa izanen den alokairua.

Goytino jaunak adierazi du alokairua SDEPAk egin ikerketan baloratua zela, baina ez dela hitzarmenean agertzen. Zehaztu du kWh bakoitza 0,15 zentimotan erosiko zaiola herriari, kenketa guztiak egin eta.

Auzapezak zehaztu du herriaren helburua ez dela proiektu horrekin dirua irabaztea, baina panel fotovoltaikoak ezartzea, jakinez proiektu honetan herriak ez duela inongo gasturik.

Bacardatz jaunak galdetu du nork herritik edo SDEPAtik ordainduko duen sare publikora lotzea?

Goytino jaunak erantzun dio SDEPAk duela bere gain hartuko.

Bacardatz jaunak jakin nahi luke zer gertatuko den instalazio horrekin hitzarmena bukatzean, eta bereziki nork hartu beharko duen panelen kentzeko gastua, jakinez gastu handia suposatzen duela horrek.

Goytino jaunak ihardetsi dio hori ez dela hitzarmenean zehaztua.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua

21 – Ezpeletako AGAZ-aren finantzazio hitzarmena.

Aristizabal andereak oroitarazi du Errobi lurralde eremuko herriek erabaki zutela herritik kanpo aisialdi zentrora joaten diren haurrentzako diru parte hartze baten adostea. Haur bakoitzeko eta egun bakoitzeko 10 €tan finkatu zen.

Herri Biltzarrari proposatu dio Auzapezari baimena ematea Ezpeletako AGAZera joaten diren haurrentzako finantzazio hitzarmenaren izenpetzea, 2022an bertara joanen diren Kanboko haurrentzat.

Auzapezak ohartarazi du gai honek eztabaida anitz eragin duela Errobi lurralde eremuan. Helburua da herri guztietan baldintza berak aplikatzea.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

22 – Langileria: Absentzia Baimen Berezien eguneratzea.

Auzapezak oroitarazi du erabaki honen proiektua 2022ko martxoaren 18 Batzorde Teknikoan aurkeztu zela eta batzordeak aldeko iritzia eman zuela aho batez.

Oroitarazi du ere, Absentzia Baimen Berezi (ABB/ASA) batzuek legezko edo arauzko xedapenak bete behar dituztela, eta ondorioz Herri Biltzarrak ez duela horien gainean erabaki beharrik. Horiek dira arrazoi zibiko, hautetsi mandatu, lanbide betebeharrak eta erlijio arrazoiengatikoko baimenak, eta erabaki honetan sartzen ez direnak.

Beste kasu batzuetan, Frantziako legeak familia gertakizunentzako absentzia baimenak emateko aukera ematen du, gertakari horien izaera, eta absentzien iraupen eta onartzeko modalitateak zehaztu gabe. Ondorioz, Herri Biltzarrari dagokio erabakitzea.

2016ko martxoaren 21eko erabakiz, Herri Biltzarrak ABBen erregimena finkatu zuen. Frantziako legediaren bilakaera kontuan izanik, orduko erabaki hark ez du gehiago indarrik, eta herriko ABBak eguneratu behar ditugu. Modu orokor batean, Frantziako estatuak aplikatzen dituen arauen parekoak ezartzean datza printzipioak.

Herri Biltzarrari eskatu zaio ABB berrien gaineko erabakia hartzea, familia gertakizunentzat, biltzarkide guztiei helarazi zitzaien azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

23 – Langileria: Denbora Aurrezteko Kontua.

Auzapezak oroitarazi du Denbora Aurrezteko Kontua (DAK/CET) langileek urte batean hartu ez dituzten opor egunak aurrezteko mekanismoa dela. Frantziako araudiak DAKen esparrua finkatzen du, eta kontua irekitzeko, elikatzeko, opzioa ezartzeko eta egunen hartzeko eskaerak langilearen esku dira. Haatik, erabaki bat beharrezkoa da DAKaren irekitze, funtzionamendu, kudeaketa, heste eta langileak erabiltzeko baldintzen finkatzeko.

Auzapezak Herri Biltzarrari eskatu dio DAK aplikatzeko baldintzak finkatzea, herri biltzarkide guztiei igorri zaien azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera, bereziki kontuaren elikatzea urtean behin eginen dela.

Zerbitzuen antolaketa gaia izanki, Auzapezak zehaztu du erabaki honen proiektua 2022ko martxoaren 18 Batzorde Teknikoan aurkeztu zela eta horrek aho batez aldeko iritzia eman zuela.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

24 – Langileria: denbora partzialeko lan erregimenaren antolaketa.

Auzapezak oroitarazi du denbora partzialeko lanaldia lan denboraren egokitzapena dela, langilearen eskariz egina, eta denbora baterako ematen dela luzatua izateko aukerarekin.

Lurralde erakundeetako langileek denbora partzialean lan egin dezakete eskubidez edo baimena eskatuz zerbitzuaren beharren arabera, betiere baldintza batzuk beteaz.

2011ko apirilaren 11ko erabakiaren arabera, lanera itzultzekoa den langileak denbora partzialean lan egin nahi badu, eskaera egin beharko du lanera itzuli baino gutxienez hilabete bat lehenago. Baina, Frantziako araudiak bi hilabete finkatu ditu.

Ondorioz, Herri Biltzarrari proposatu zaio lan denbora partzialeko lan erregimenaren antolaketari buruzko erabakia hartzea, elementu horren aldatzeko.

Zerbitzuen antolaketa gaia izanki, Auzapezak zehaztu du erabaki honen proiektua 2022ko martxoaren 18 Batzorde Teknikoan aurkeztu zela eta horrek aho batez aldeko iritzia eman zuela.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

25 –Langileria: 2022ko denboraldi enpleguak.

Auzapezak oroitarazi du herriak urtero denboraldi enpleguak kontratatzen dituela, zerbitzuz zerbitzu honela zehazturik: eraikinak eta bestak, lokalen mantenua, herriko berdeguneak/garbitasuna, Arnagako berdeguneak, mediateka, Arnaga museoa.

Aïçaguerre andereak galdetu du herriak hautagaitza anitz eskuratu duenez enplegu horientzat.

Auzapezak ihardetsi dio, beste enpleguentzat bezalaxe, denboraldikoentzat ere garai korapilatsuak direla.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du zergatik mediatekan euskaldun batek betetzen zuen enplegua kendua izan den.

Auzapezak erantzun dio enplegua ez dela kendua izan, baina ez zaiola kontratuari segidarik eman. Oraingoz euskalduna ez den kontratupeko bat kontratatu dugu denbora partzialean. Bizkitartean, ezarriko den antolaketa berriarekin, langile elebiduna xerkatuko dugu, besteak beste zerbitzu horretan denbora erdiz aritzeko.

Hiriart-Urruty andereak zerbitzuen berrantolaketari buruzko zehaztasunak eskatu ditu.

Auzapezak erantzun dio gai hori enplegu sortzei buruzko ondorengo puntu batean aipatuko dela.

Alaman jaunak galdetu du nola kontratatzen den mediatekako langileria.

Auzapezak ihardetsi dio denboraldiko enplegu guztientzat bezala, zerbitzuetako arduradunek dituztela eskaerak egiten. Kontratatu denaren hautua lurralde aginterari dagokio.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du mediatekaren kasuan bere kontratua luzatu ez zaion pertsonak herriko langile izaten segitu nahi zuela.

Auzapezak erantzun dio, pertsona horren kontratua ez luzatzeko arrazoia ez dela langilearen pertsonalitate edo gaitasunei lotua, bai ordea langile horren txosten profesionalari. Ezin du publikoki xehetasun gehiago eman.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

26 – Langileria: enplegu sortzea.

Auzapezak oroitarazi du herriak diagnostiko bat abiatu duela Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kudeaketa Zentroaren eskariz. Tailerrak antolatu dira langile eta hautetsiekin gaur egun postuak nola bilaka daitezkeen aztertzeko. Besteak beste, Kudeaketa Zentroko Garcia jaunari eskatu zion oposizioa hautetsiekin egon zedila diagnostikoaren emaitzen berri emateko.

Aïçaguerre andereak adierazi du bilkura hori gaur bertan programatu zela, baina goizez, lan egiten duen jendearentzako ezinezkoa izanik bertara joatea.

Hiriart-Urruty andereak jada horren ildotik erantzun zuen. Bere taldeari eskatu zitzaion inkesta horretan parte hartzea, baina eguna eta tenorea ez ziren egokiak. Hobe zatekeen egun bukaerako tenorean zenbait egun proposatzea.

Auzapezak berretsi du eskatu zuela oposizioko taldeak diagnostikoan eta emaitzen aurkezpenean parte har zezala. Hori dela-eta, beste bilkura bat programatuko da. Diagnostikoak agerian eman du 2015eko lan egiteko moldea ez dela gaur egungo egoerari egokitu. Egokitu beharra dago, eta gaur egungo egituraren antolaketa berrikusi behar da. Jadanik badakigu langilerik gabe gelditu diren postu batzuk naturalki berriz beteko direla (udaltzain arduraduna, herriko etxerako eta mediatekarako animatzaile euskalduna) eta honako erabakia 2022ko apirilaren 1etik goiti sortuko diren bi enpleguri buruzkoa dela:

- Komunikazio karguduna eta idazkaritza orokorra: denbora osoko lurralde arduradun lanpostu iraunkorra, lurralde erredaktoreek betetzen ahal dutena, jasoko diren profilen arabera,
- Eraikinen arduraduna: denbora osoko lurralde teknikari lanpostu iraunkorra, talde arduradunei irekia, jasoko diren profilen arabera.

Alaman galdegin du ea skateparkeko lanpostua sortu ote den.

Auzapezak ihardetsi dio animatzaile hori ez dela herriko langilea izanen, baina kanpoko zerbitzu emaila. Horretarako, herriak hitzarmena izenpetuko du pertsona horrekin.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

Lassus jauna gelatik atera da.

27 – Langileria: enplegatzaileen gizarte babesari buruzko eztabaida.

Auzapezak zehaztu du, Frantziako 2021eko otsailaren 17ko 2021-175 ordenantzaren 4 III artikulua arabera, funtzio publikoko gizarte babes gehigarriari buruzkoa, lurralde kolektibitateetako biltzar erabakitzaileek eztabaida antolatu behar dutela langileei eskaintzen zaien gizarte babes gehigarrien bermeei buruz. Eztabaida hori egin beharko da 2026ko Herri Biltzar eraberritua izendatu eta sei hilabete barne. Honela, Herri Biltzarrak honako gaiei buruzko erabakiak hartu beharko ditu, lurraldeko Gizarte Batzordearen iritzia ukan-eta (osasuna eta erretreta bereizirik): parte hartzearen zenbatekoa, onuradunak eta parte hartzeko modua.

Orain arte hautazkoa zen gizarte babesaren finantzazioan enplegatzaile publikoen parte hartzea 2022ko urtarrilaren 1etik derrigorrezko bilakatu da.

2012ko abenduaren 10eko erabakiz, Herri Biltzarrak osasun eta erretreta babes gehigarriaren zati bat bere gain hartzea onartu zuen, labelizazioan oinarritutako parte hartzeko modu batekin. Auzapezak xehetasunak eman ditu.

Herri Biltzarrak enplegatzaileen gizarte babesari buruzko eztabaida izan dela baieztatu du.

– Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, eta 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarraren erabakia ikusirik, honakoen berri eman da:

- Hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko erabakiak, 2022ko otsailaren 13tik 2022ko martxoaren 15era:
 - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobia): 2
 - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobitxoak): 1
- 2022ko martxoaren 1eko erabakia: Akitania Berria Eskualdeari kirol ekipamenduen laguntzeko 252 000 €ko dirulaguntza eskaera bi tenis zelairen eraikitzeko, hots 1 205 205,30 €ko inbertsio orokorraren %20,91.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 20:39ean hetsi du.